

## GASTEIZKO KOROATZE AUZOAREN HIRI-BERRONERATZE INTEGRATUA EGITEKO PROIEKTUAREN JARDUKETA-EREMUAN SARTUTAKO ETXEBIZITZEN JABEEK KONTRAPRESTAZIORIK GABEKO DIRU-EKARPENAK JASOTZEKO OINARRIAK

### 1. AURREKARIAK

- 1.1. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, Etxebizitza Sailburuordetzaren eta VISESA sozietate publikoaren bitartez, Gasteizko Koroatze auzoan hiri-berroneratze integratua egiteko proiektuan (aurrerantzean, Koroatze proiektua) parte hartzen dute. Ereku horretan bizikalitatea modu iraunkorren hobetuko duten eta energia-eraginkortasuna, mugikortasun iraunkorra eta IKTak erabiltzea oinarri dituzten irtenbide integratuak eta orekatuak garatzea eta hedatzea dira proiektuaren helburuak. Proiektuak honako jarduketa hauek jasotzen ditu:
  - a) Oinarrizko birgaikuntza energetikoa: 750 eta 1.313 etxebizitza bitartean modernizatzea, energiaren ikuspuntutik eraginkorrak izan daitezen (eraikinen inguratzailearen birgaikuntza energetikoa).
  - b) Berokuntza-sarea: % 100 berriztagarria den biomasa baliatzen duen hiri berokuntza-sistema instalatzea, eskaera termikoaren % 100 betetzen duena: berokuntza + ur bero sanitarioa, egokitutako 750 etxebizitza gutxienez hornitzeko.
  - c) Azpiegitura elektriko eta termiko integratuak: froga egiten den lekuan zabaltzen den hiri-berokuntzaren kudeaketa elektrizitate-kontsumoen kudeaketarekin integratzea.
  - d) Mugikortasun iraunkorra: Gasteiz hiriko ibilgailuen parkean teknologia garbiak sartzea eta batez ere ibilgailu hibridoak eta elektrikoak baliatzea, helburu hori lortzeko.
  - e) IKTak: Gasteizerako Hiri Kudeaketako Sistema (SGU-VG) hedatzea, hiri informazioko plataforma irekiaren (CIOP) definizio komunean oinarritutakoa.
  - f) Hiri espazioa biziberritzea: kaleak eta plazak berritzea, auzoa erakargarriagoa izan dadin.
- 1.2. Europako Batzordeak, Sareak Berritzeko Agentzia Exekutiboaren (INEA) bidez, 27.890.138,75 euroz finantzatu du SmartEnCity proiektua, Tartu, Sonderborg eta Gasteiz hirietan garatu eta ezartzeko, Partzuergoa osatzen dutenek sinatutako Dirulaguntzetarako Hitzarmenean xedatutakoarekin bat; horietako 6.299.254 euro Koroatze proiektura bideratuko dira.
- 1.3. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak lagunduko du proiektua finantzatzen. Gauzak horrela, garai hartako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2016ko urriaren 25eko Aginduaren bidez eman zitzaion VISESA sozietate publikoari Koroatze proiektua egikaritzeko dirulaguntza izendunaren gehienezko zenbatekoa, honako banakapen honen arabera: birgaikuntza energetikoa egiteko 4.500.000 euroko diru-laguntza eta berokuntza-sarerako 800.000 euro.
- 1.4. 2016ko urriaren 25eko aipatu Aginduak honako hau arautzen du: VISESAk *“eraikinen jabeen erraztasunak jartzeko prozesuari bideratutako funtsak eta diru-laguntza publikoak ematen dituen sozietate publiko”* gisa jardutea, VISESAk Etxebizitza Sail eskudunarekin adostutakoaren arabera.

- 1.5. VISESAk 2.310.000 euroko **berme-funtsa** eratzen parte hartuko du. Funts hori Etxebizitza Sailburuordetzak emango dio, eta, horren bidez, laguntza eman ahal izango die jabeek birgaikuntzak dituen kostuak ordaindu ahal izateko; diru-laguntza eskaintzen ez den alorretan ordainketei aurre egin ezin dieten pertsonen, hain zuzen ere. Era horretan, etxebizitza ohiko bizileku iraunkor gisa erabiltzen duten eskatzaileek baino ezingo dituzte jaso laguntza horiek, eta bizikidetzaren unitatea osatzen duen familiaren diru-sarrera haztatuen arabera emango dira.
- 1.6. Era berean, Gasteizko Udalak, VISESArekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren bidez, 990.000 euroko ekarpena egingo dio gehienez aipatu Berme Funtzari, eta xede berarekin.
- 1.7. Ondorioz, eraturako berme-funtsaren zenbatekoa 3.300.000 eurokoa izango da, gehienez.

## **2. KONTRAPRESTAZIORIK GABEKO DIRU-EKARPENEN XEDEA ETA EZAUGARRIAK.**

- 2.1. Oinarri hauen xedea honako hau da: Koroatze proiektuan sartutako etxebizitzak birgaitzeko lanei dagokienez, jabeek diruz lagunduta egongo ez den zatia ordaindu ahal izateko, VISESAk beren eskura jartzen dituen kontraprestaziorik gabeko diru-ekarpenak jasotzeko baldintzak arautzea, helburua eta xedea erabakitzeko, 2016ko urriko 25eko Aginduak ezartzen duen moduan.
- 2.2. Oinarri hauei kudeaketa eta informazioaren lege-printzipio berberak (publizitatea, gardentasuna, lehiakortasuna, objektibotasuna, berdintasuna, bereizkeriarik eza, eraginkortasuna eta efizientzia) aplikatzea galarazi gabe, dokumentu honetan araututako ekarpenak ez dira dirulaguntza publikotzat jotzen, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean aurreikusitako ondorioetarako.

## **3. EGOERA PERTSONALARI LOTURIKO BETEKIZUNAK.**

- 3.1. Pertsona fisiko guztiak izan daitezke ekarpenen onuradunak, Koroatze proiektuaren jarduketaren eremua osatzen duten etxebizitzetako baten jabeak badira eta etxebizitza hori beren ohiko bizileku iraunkorra bada. Onuradunak birgaikuntzaren titularrak izan behar dira, eta urteko diru-sarrera haztatuak 21.100 euro baino gutxiago izan beharko dira.

Ondorio horietarako, ohiko bizileku iraunkortzat joko da okupatzaileen etxebizitza-premia zuzenean eta berehala asebetetzen duena, eta, gainera, legezko bizilekua dena, eskubideez baliatzeko eta obligazioak betetzeko lekua delako. Nolanahi ere, hiru hilabete baino gehiagotan jarraian hutsik dagoen etxebizitzak ohiko bizileku izateari utzi diola pentsatuko da, etxebizitzak ohiko bizileku iraunkorra izaten jarraitzen duela arrazoituta dagoenean izan ezik.

- 3.2. Eskatzaileek egiaztatu beharko dute azken urtean geldiarazpenik gabe egon direla erroldatuta etxebizitza horretan.
- 3.3. Ekarpenak jasotzeko, eskatzaileek 21.100 euro edo gutxiagoko familiako urteko diru-sarrera haztatuak eduki behar dituzte. Diru-sarreraren haztapena martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 23. artikuluan jasotakoarekin bat egingo da (EHAA, 59 zk., 2008ko martxoaren 28koa).

- 3.4. Bizikidetzta-unitatetzat joko dira: ezkontzaren bidez edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkorraren bidez, adopzioz edo odolkidetasunez (hirugarren gradua arte), eta kidetasunez (bigarren gradua arte) bi pertsonak edo gehiagok osatzen dutena. Bizikidetzta erroldatze-ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da. Familiako diru-sarrerak zenbatze aldera, etxebizitzan bizi diren birgaitze-obrako jabeen diru-sarrerak aintzat hartuko dira.
- 3.5. Jabeek ezingo dituzte ekarpenak jaso, beste ondasun higiezin bat beren izenean edo bizikidetzta-unitateko kideetako baten izenean inskribatuta badago, % 25 baino handiagoko titulartasunarekin.

Higiezintzat joko dira ondorio hauetarako:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoan dauden etxebizitza guztiak, haien gainean infraetxe adierazpen bat badago salbu ekainaren 18ko 3/2015 Legearen, Etxebizitzari buruzkoaren, 60. artikuluan jasotako baldintzen arabera.

Ez dira higiezintzat joko 35.000 euro baino katastro-balio txikiagoa eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dauden etxebizitzak.

Trastelekuak ere ez dira higiezintzat joko.

- b) 50.000 euro baino katastro-balio handiagoko lursailak.
- c) 25.000 euro baino katastro-balio handiagoko industria-nabeak, kasu horretan jabearen jarduera profesionala gauzatzeko balio badute salbu.
- d) 9.500 euro baino katastro-balio handiagoa eta Koroatzeko birgaitze proiektuaren esparrutik kanpo dauden garajeak.
- e) 60.000 euro baino katastro-balio handiagoa eta Koroatzeko birgaitze proiektuaren esparrutik at dauden lokalak, kasu horretan jabearen jarduera profesionala gauzatzeko balio badute salbu.  
Nolanahi ere, katastro-balioen batura ez da 50.000 euro baino gehiago izango.

- 3.6. Dirulaguntzak edo bestelako laguntza publikoak jasotzeko debekuarekin zigor-edo administrazio-bidean zigortuta dauden edo horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekua dutenek ere ezingo dute laguntza hori jaso.
- 3.7. Egoera berezietan eta/edo arrazoi justifikatuak direla medio, aztertuko da laguntzak premia bereziak dituzten pertsonen emateko aukera, aurretik aipatutako baldintzak –bizilekua, erroldatzea, diru-sarrerak edo beste ondasunik ez edukitzea– betetzen ez badituzte ere.

#### **4. DIRU-SARREREI LOTURIKO BETEKIZUNAK.**

- 4.1. PFEZaren aitortpena aurkezteko betebeharra duten pertsonen kasuan, eta betebeharririk izan gabe aitortpena egin dutenen kasuan, zerga-oinarriak aintzat hartuko dira, orokorra eta aurrezkiarena, baita lanaren etekinei aplikatutako hobariak eta, halakorik egonez gero, salbuetsitako errentak ere.

4.2. PFEZaren aitorpena aurkeztu behar ez dutenen kasuan, honako diru-sarrera hauek hartuko dira kontuan:

- Lanaren etekinen eta langabezia-prestazioen kasuan, kontzeptu guztiengatik jasotako diru-sarrera gordinen % 95.
- Pentsioen, langabezia-sorospenen eta kargatik salbuetsitako ordainen kasuan, kontzeptu guztiengatik jasotako diru-sarrera gordinen % 100.
- Era berean, pentsio osagarria diru-sarrera gisa hartuko da kontuan hura ordaindu behar duen ezkontide ohiaren diru-sarreraren minorazio gisa jasotzen duen ezkontide ohiaren diru-sarrera gisa, baldin eta pentsio osagarria ordaindu behar duen ezkontide ohiak benetan ordaindu duela agirien bidez egiaztatzen badu.
- Lanaren etekinen ondoriozko diru-sarrerak egiaztatzeko, PFEZaren atxikipean jasotzen dituzten agiri ofizialak bakarrik hartuko dira kontuan.

4.3. Bizikidetz-unitatearen diru-sarrera haztatuak honela kalkulatu dira:

$$\text{Diru-sarrera haztatuak (IP)} = \text{Diru-sarrera konputagarriak} \times N \times A$$

Kide batek familiako diru-sarrera guztien gutxienez % 20 jartzen duenean esango da diru-sarrerak jartzen dituela, hau da, eskuratzaila dela.

#### **“N” koefizientea kide kopurua**

Kide bat:	1,00
2 kide:	0,95
3 kide:	0,90
4 kide:	0,85
5 kide:	0,75
6 kide:	0,65
7 kide:	0,55
7 kidetik gora:	0,50

#### **“A” koefizientea eskuratzaila kopurua**

Eskuratzaila bat:	1,00
2 eskuratzaila:	0,90
3 edo gehiago:	0,85

## **5. DIRU-EKARPENEN ZENBATEKOA ETA BESTE DIRULAGUNTZA PUBLIKO BATZUEKIKO ALDIBEREKOTASUNA.**

5.1. Diru-ekarpenak birgaikuntza-kostuari dagokionez, Oinarri hauetako Aurrekarietan aipatutako diru-laguntza publikoekin edo xede bera betetzeko jaso den beste laguntza batekin ordainduko ez den zatiaren % 100 ordaintzera bideratuko dira, zati hori diru-sarrera txikiak edo finantzaketa lortzeko zailtasunak dituzten etxebizitzaren titularrek ordaindu behar badute. Aplikatuko den ehunekoa

bizikidetza-unitateko kideen kopuruaren arabera izango da, taula honetan adierazten den moduan:

DIRU-SARRERA HAZTATUAK	BIZIKIDETZA-UNITATEKO KIDEEN KOPURUA		
	Kide bat	2 kide	3 kide edo gehiago
9.000 euro arte	% 100	% 100	% 100
9.001 eurotik 12.000 eurora	% 50	% 100	% 100
12.001 eurotik 15.000 eurora	% 25	% 50	% 100
15.001 eurotik 18.000 eurora	0 %	% 25	% 50
18.001 eurotik 21.100 eurora	0 %	0 %	% 25

- 5.2. Diru-sarrera haztatuak kalkulatzeari eta bizikidetza-unitateko kideen kopurua mugatzeko irizpideak ezartzeari dagokionez, Etxebizitzen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak hartutako irizpideen arabera egingo dira, proiektuaren antzekoak diren beste ekintza batzuetarako emandako laguntzei dagokienez.
- 5.3. Diru-ekarpena 3.300.000 eurokoa izango da gehienez, eta eskatzaileek ez dute eskubiderik edo aukerarik izango, aipatu funtsa agortzen baldin bada.
- 5.4. Oinarri hauen babesean jasoko diren diru-ekarpenak bateragarriak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek xede berea lortzeko ematen dituzten laguntzekin, hala ere, guztien baturak birgaitze-lanen kostua gainditzen badu, murriztu egingo da edo behar den diru-kopurua itzultzeko eskatuko da, gainfinantzaketa saihesteko.

## 6. JAKITERA EMATEA, ESKAERAK ETA DOKUMENTAZIOA

- 6.1. Oinarri hauek VISESAren webgune honetan argitaratuko dira: [www.visesa.eus](http://www.visesa.eus).
- 6.2. Interesdunek, eranskinean dagoen inprimakia bete ondoren, honako helbide honetan aurkeztu ahal izango dute eskaera, Oinarriak jakitera eman den egunetik aurrera:
- ARABAKO BEZEROARI HARRETA EGITEKO BULEGOA; EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, E.A. (VISESA)  
Gamarrako atea 1 A, - Behea  
Tel.: 945 21 40 38  
01013 Gasteiz  
Gure ordutegia hauxe da; goizez: astelehenetik ostiralera 08:30etik 14:00etara. Arratsaldez: astelehenetik ostegunera 15:00etatik 16:30era
- 6.3. Eskaerak aurkezteko epea aurrekontua agortu arte egongo da irekita.
- 6.4. Aipatu aurrekontua amaitzen denean, hori ere jakitera emango da. Osaturik aurkeztu diren eta bideratu diren eskabideak bazter egingo dira, esleitutako aurrekontua amaitu delako onartu ezin badira; horiek ukatu egingo dira, VISESAren zuzendari nagusiak hartuko duen erabakiaren bidez.

## 6.5. Eskabidearekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Bizikidetzaren unitateko kide guztien NANaren fotokopia.
- b) Ondasun higiezinaren jabetza egiaztatzen duen agiria (eskrituraren fotokopia edo Jabetza Erregistroaren informazio-ohar sinplea).
- c) Ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordainagiriaren fotokopia, etxebizitzaren zenbaki finkoa eta katastro-erreferentzia adierazten dituena.
- d) Erroldako udal ziurtagiria, jardueraren xede den etxebizitzan bizi diren pertsona guztiak adierazten dituena.
- e) Bizikidetzaren unitateko kide bakoitzaren diru-sarreraren ziurtagiriak:
  - Eskaera hau aurkezten denean amaituta dagoen azken zergaldiko PFEZaren aitortzenaren fotokopia; aitortzenak Foru Ogasunean, Kutxan edo Banketxean aurkeztua izanaren zigilua eraman behar du.
  - Kotizazio gabeko prestazioak jasotzen badira, horien ziurtagiriak.
  - Eskatzaileak PFEZ aitortu beharrik ez baldin badu:
    - o Kasu guztietan:
      - Foru Ogasunaren ziurtagiria, eskatzaileak amaituta dagoen azken zergaldian PFEZ aitortu beharrik ez duela egiaztatzen duena.
      - Lan-bizitzaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrek emana.
    - o Errenta-ziurtagiria, Gizarte Segurantzak emana.
- f) Jabetza Erregistroaren ziurtagiria, bizikidetzaren unitateko kideen izenean inskribatuta dauden ondasunei buruz.
- g)  Dirulaguntzen ziurtagiria, erakunde ofizialak emana.
- h)  Jasotako/ordaindutako pentsio konpentsatzaileen egiaztatzea, hala badagokio.
- i)  Norberaren lanaren, ekonomia jardueren eta sarien etekinen ziurtagiria (10-T).
- j) Zinpeko aitortzea, bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonen aitortu dituztenak baino beste ondasunik ez dutela jasotzen duena.

## 7. KUDEAKETA, PROZEDURA ETA ORDAINTZEA

- 7.1. Ekarpeneren emakida ondoz ondoko konkurrentziaren prozeduraren bidez gauzatu da, hortaz, espedienteak aurkeztu diren hurrenkeraren edo ordenaren arabera aztertu eta bideratu dira, eta egoki formulatu eta bete ahala, dagokion hurrenkeran ebatziko dira.
- 7.2. Eskabidea osatu gabe edo gaizki osatuta badago, hutsegiteak zuzentzeko, eskatzaileari hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio (larunbatak ez dira egun baliodunak), jakinarazpena jaso den egunetik zenbatzen hasita.
- 7.3. Dokumentazioa ezarritako epean aurkezten bada, jarraitu egingo da espedientea izapidetzen. Bestela, eskatzaileak atzera egin duela ulertuko da, dokumentazioan antzemandako hutsuneak ezarritako epean ez zuzentzeagatik.
- 7.4. VISESAk ekarpena jasotzeko eskaera behar bezala aztertzeko beharrezkotzat joko duen informazio eta dokumentazio osagarria eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

- 7.5. VISESAren zuzendari nagusiak gehienez ere sei (6) hilabeteko epea izango du eskaerak ebazteko eta ebazpena eskatzaileei jakinarazteko, eskaera aurkeztu denetik zenbatzen hasita. Behin obra bukatuta eta horren zenbateko zehatza zein den jakinda, VISESAko zuzendari nagusiak behin betiko ebazpena egingo du eta eskatzaileei jakinaraziko die.
- 7.6. Ekarpena emateko orduan aintzat hartutako baldintzetan egon daitekeen edozein aldaketak alda dezake emakidari buruzko erabakia. Inguruabarra edozein dela ere informazio faltua edo informaziorik eza antzematen denean, VISESAk hori jakinda ekarpena ukatu edo horren zenbatekoa txikiagotuko bazuen, hartutako erabakia aldatu egingo du. Erabakia, horren ondorio ekonomikoak, baita ordainketen egutegian izan dezakeen eragina ere, onuradunari jakinaraziko zaizkio.
- 7.7. Diru-ekarpena murrizketaren bidez egingo da; hau da, VISESAk jabeen erkidegoarekin sinatutako kontratuan jasota dagoen ordainketa-egutegiari jarraiz ordainaraziko dion zenbatekoari onuradunak egin beharko liokeen ekarpena murriztu egingo da (hortaz, kostu txikiagoa ordainduko du).

## **8. ONURADUNAREN BETEBEHARRAK, HORIEK EZ BETETZEA ETA DIRULAGUNTZA ITZULTZEA**

8.1. Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek honako baldintza hauek bete behar dituzte, kasu guztietan:

- a) 2. oinarriko 2. atalean ezarritakoa eragotzi gabe onuradunaren betebeharrak jasota daude Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan.
- b) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, hamabost (15) egun baliodunen barruan (dirulaguntza eman delako jakinarazpena jaso denetik hasita), onuradunak VISESArekin idatziz formalizatu beharko du dagokion kontratu edo hitzarmena, baldintza ekonomikoak eta oinarri hauen edukia jasoko dituena. Kontratu edo hitzarmenik sinatzen ez bada, onuradunak emandako laguntzari isilean uko egin diola ulertuko da.
- c) Laguntza eman den xederako erabiltzea.
- d) Deialdi honen bidez jasotako laguntzei dagokienez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak bere eginkizunak betetzean eskatzen dioten informazioa ematea.
- e) Beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batetik etor daitezkeen xede bereko dirulaguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak jasotzeko eskaera egin bada edo halako laguntza bat jaso bada, VISESAri jakinaraztea.
- f) Etxebizitzaren jabeak bere jabe-erkidegoak VISESArekin sinatutako hitzarmenean xedatutako guztia hartu eta onartzea. VISESAk jabeen erkidegoaren alde gauzatuko dituen birgaitze-lanetatik –Koroatze proiektuari dagozkion horietatik– sor daitezkeen eskubide eta betebeharrak arautzeko sinatuko da aipatu hitzarmena.

- g) VIVESAri jasotako diru-ekarpenak itzultzea baldin eta etxebizitzaren eskualdatzea (<<inter vivos>> edo <<mortis causa>> ) gertatzen baldin bada, bai jabetzarena bai jabetza soilarena edo gozamenarena, doakoak zein kostu handikoak izan, dirulaguntza eman denetik hurrengo hogeita bost (25) urtera. Eskuratzailerak ezin da bizikidetzak-unitateko kide izan egitate sorrarazlearen aurreko bost (5) urteetan. Etxebizitzaren eskualdatzearen kasuan, egitate sorrarazlearen aurreko bost (5) urteetan bizikidetzak-unitateko kide izan den pertsona baldin bada, edo banantze edo dibortzio kasuetan, etxebizitza ezkontide baten alde adjudikatzen denean, jabe berria jabe ohiaren lekuan subrogatuko da, 25 urteko epera arte gainerako denbora bete arte.

## 8.2. Dirulaguntzak itzultzeko baldintzak:

- a) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharra betearazteko xedez, eskualdatzetzat joko da higiezia sozietateren bati zibila nahiz merkataritzakoa ematea edo aipatu erakundeen akzioak nahiz partaidetza sozialak eskualdatzea.
- b) Bizikidetzak-unitatetzat joko dira: ezkontzaren bidez edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkorraren bidez, adopzioz edo odolkidetasunez (hirugarren gradua arte), eta kidetasunez (bigarren gradua arte) bi pertsonak edo gehiagok osatzen dutena.

Bizikidetzak erroldatze-ziurtagiriaren bidez egiaztatuta beharko da.

- c) Dirulaguntza itzultzeko betebeharra betearazteko aurreikusitakoarekin bat etorritik, 30 egun naturaleko epean egin beharko da "inter vivos" eskualdatzea gertatzen denetik, edo adjudikazioa gertatzen denetik "mortis causa" kasuetan.
- d) Dirulaguntza itzultzean legezko interesak gora egingo du itzultze horren aurreko 5 urte horietan (dirulaguntza eman zen datatik hasita).
- e) Jabeak dirulaguntzaren amortizazio partzialak egiteko aukera izango du dagozkion interesak ezarrita, aurreko atalean jasotzen den moduan (emandako zenbatekoaren % 20 izan beharko da gutxienez, aurretik amortizazioak egin direlako, itzultzeko falta den partearen ehuneko hori baino txikiagoa den kasuetan salbu). Dirulaguntza eman zenetik lehenengo bost urtera egingo diren amortizazioek ez dute interesik sortuko, baina seigarren urtetik aurrera printzipalaren interesen zenbatekoa areagotu beharko da proposatutako formularen arabera.

## 8.3. Dirulaguntza itzultzeko bermea:

- a) Dirulaguntza eta legezko interesa itzultzeko nahitaezko betetze hori bermatzeko xedez, VIVESAren alde, hura hartzekoduna den heinean, 25 urteko iraupena duen aldebakarreko hipoteka bermea emango da, eta hark gauzatzeari ekingo dio, betiere baldintzak betetzen baldin badira laguntza itzultzeko nahitaezko betetze hori bermatzeko, eta jabeak ez badu dirulaguntza horren itzultze efektiboa egin. Berme hori behar bezala inskribatu beharko da Jabetzaren Erregistroan.



- b) Onuradunak konpromisoa hartzen du aipatu bermea eratzeko beharrezkoak izan daitezkeen agiri publiko zein pribatuak emateko, edo, hala badagokio, lehenasunez erosteko eskubidea emateko.
- c) Notario-gastuak, erregistro-gastuak edo eskubidea eratzeak sor ditzakeen edozein gastu VISESAk ordainduko ditu.

Hipotekatzailearen kontu izango dira ordainketa-gutun eta hipotekaren ezereztearekin zerikusia duten gastuak. Hipotekatzaileari dagokio hipoteka-hartzekodunari lehengo kopia bidaltzean sortzen diren gastuak eta hipoteka aldatzeari edo ezerezteari dagozkion erregistro gastuak; hipoteka aldatzeari edo ezerezteari zerga ezartzen diotenak edo ezar diezaioketenak, izapidearen gastuekin batera; etxebizitza erregistroan eskritura, eta zergen bulego likidatzailea, prozesuaren gastuak, edo zordunak ordaintzeko betebeharra haustearekin loturiko bestelako gastuak, abokatuaren eta prokuradorearen ordainsariak barne, eta hartzekodunak aukeratutako betearazpen-prozedura edozein izanik.

Dirulaguntza itzultzeko beharra sortzen duen etxebizitzaren inter vivos edo mortis causa eskualdatze kasuetan, onuradunak VISESAri itzuli beharko dio gastu horien zenbatekoa (bai bermearen osaerarenak bai iraungipenarenak) emandako dirulaguntzarekin batera, dirulaguntza itzultzeko beharra gauzatu den ekitaldiaren aurreko 5 urteetako legezko-tasaren arabera eguneratuta.

- 8.4 Oinarri hauetan ezarritako betekizunak ez betetzeak, ez-betetzeari buruzko espedientea bideratuta, emandako diru-ekarpena baliogabetzea eta jasotako zenbatekoa (dagozkion legezko interesak barne) VISESAri itzultzeko beharra ekarriko du.
- 8.5 Laguntzaren emakida baliogabetzeko espedienteak irekitzea eta ebaztea eta, hala badagokio, laguntza –zati bat edo osorik– itzularaztea VISESAren zuzendari nagusiaren ardura izango da.

## **9. ESKATZAILEEI INFORMAZIOA EMATEARI BURUZKO KLAUSULA**

- 9.1. VISESAk, Gasteizko Gamarrako atea 1 A zenbakian, 2. solairuan, PK 01013 helbidea duenak, jakinarazten du onuradunak emango dituen edo geroago sortuko diren datu pertsonalak VISESAren ardurapeko fitxategietan sartuko direla. Datuok eskaera aztertzeke eta kudeatzeko prozesatuko dira, eta hala badagokio, eskaera honen xede diren laguntzak eman izanaren ondorioz ezarritako harremana bideratzeko eta kontrolatzeko, baita aplikatzeko den araudia betetzeko ere.
- 9.2. Onuradunek datuak babesteari buruzko araudian aitortutako eskubideak –datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta horien aurka egiteko– erabili ahal izango dituzte. Horretarako, VISESArekin harremanetan jarri beharko dute, aurreko idatz-zatian adierazitako helbidera idazki bat eta eskatzailearen nortasuna behar bezala egiaztatzen duen agiri bat bidaliz.
- 9.3. Onuradun orok konpromisoa hartzen du eskaera hau kudeatzearekin, eta hala badagokio, gauzatzearekin zerikusia duen edozein pertsona fisiko/juridikoren datu pertsonalen bat VISESAri eman aurretik aurreko idatz-zatietan aurreikusitakoa pertsona fisiko/juridiko horri jakinaraziko diola eta VISESAri datu pertsonalak

behar bezala emateko orduan aplika daitezkeen beste baldintza guztiak beteko dituela, VISESAk beste jarduketarik egin beharrik gabe. Halaber, konpromisoa hartzen du VISESAri emandako datuak zuzendu edo baliogabetzeko beharra jakinaraziko diola.

## **10. AZKEN XEDAPENAK**

- 10.1. VISESAk Oinarri hauei dagokienez hartuko dituen erabaki guztiek izaera juridiko-pribatua izango dute, osagarri gisa, dagokionean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 1/1997 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa aplikatzea eragotzi gabe.
- 10.2. VISESAko administrazio-kontseiluak presidenteordeari eta zuzendari nagusiarri modu solidarioan ahalmena eman die oinarri hauek aplikatzeko orduan sor daitezkeen interpretazio-arazoak konpondu ahal ditzaten.
- 10.3. Oinarri hauek onartzeak eta aplikatzeak sor ditzaketen arazo guztietarako, erabakitzeko eskumena jurisdikzio zibilarena izango da, batez ere, Gasteizko epaitegi eta auzitegiarena.